

Igorren berbaldia, Diman bisita gidatua

Ondarearen Europako Jardunaldiak aurten hezkuntza ondarea hartu dabe gaitzat eta horren inguruko ekintzak antolatu dabez Igorren eta Diman. Igorren, hilaren 21ean, Angel Larrea Beobide historialariak Igorre eta Arratiako hezkuntza ondarearen gaineko berbaldia egingo dau. Eta Diman, hilaren 31n, Antzasti Euskaldunon Etxera eta Obako eskola zaharrera bisitaldia egongo da. Antxinako heziketa eremu bi: eskolea eta etxea, ezetuteko. **12. orrialdea**



Begitu-lagun egitea 15 euroren truke, Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz

13. orrialdea

Euskaraldia martxan dago

Entidadeen izen emotea amaituta, norbanakoak izena emon dagien animetako beharrea dabiz eskualdeko herri eta batzordeetan.

Dozenaka entidadek emon dabe izena, bertan ariguneak osotu eta barruko zein kanpoko hartu-emonetarako hizkuntzea euskerea izan daiten, printzipioz Euskaraldiak irauten dituan 15 egunetan. Baina Euskaraldiaren helburua bete ezker, hizkuntza ohiturak aldatuko dira eta euskerak espazio hori eskuratuko dau.

Oin, norbanakoen txandea da. Ahobizi edo belarriprest jardungo dabe, ahal dan guztietan euskeraz berba egiten. Jentea animetako, izena emoteko mahaiak ipinten hasi dira herri batzuetan, beste batzuetan barriz, bideoak egin eta sare sozialetara igongo ditue. Herri gehienetan Euskaraldiko Batzordeak sortu dira ariketa soziologiko masibo hau kudeatuteko. **5. orrialdea**



Igoran Arratiako Jabekuntza Eskolako programea prest

Lehenengo ekintzak oingo hamabostaldian izango dira. Andra feminista zaharren Morea eta Grisa ekimenaren barruko *Couldburst* pelikulearen emonaldia izango da lehena eta hilaren amaieran, apirlean egin behar zan euskerea eta feminismoaren gaineko tailerra egongo da. Oingo ikasturterako dozena bat ikastaro eta tailer eta alkargune bi, andra zaharrak eta mendizaleentzat antolatu ditu ikasturte honetarako Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak. **5. orrialdea**



ARRATIA

Erabakitze eskubidearen aldeko Altxa! ekitaldi politiko eta kulturala

Hamaika Gara ekimenak, martiaren hasieran aurkeztu eban erabakitze eskubidea eskatzeko erreferendumaren aldeko egitasmoa. Osasun krisiak eten egin ebazan programautako ekitaldiak eta oin ekingo deusie barriro. Hori dala-eta, urri bigarrenaren 31n Durangoko Plateruenean garabauko dabe Altxa! izeneko ekitaldi politiko eta kulturala. Herrietan ikusi ahal izango da.

Ekitaldi honegaz, komunitadeari eragiten deusien auziak erreferendum bidez ebazteko sinadurak biltzean dabizala ekarriko dabe gogora. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aurreko pandemiak

Angel Larrea Zeanuriko historialariak, historian izan diran hainbat pandemiaren barri dakar *Aurreko pandemiak* izeneko artikuluan. Erromako Inperioan hasi eta 1918ko griperaino gizakiaren historia pandemiez beteta dago. Eta beti, jente xumea eta herrialde pobretuenak izaten dira kaltetuenak. **8. eta 9. orrialdeak**

AREATZA

Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuorde

Begoña Pedrosa Areatzakoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuorde izango da Jokin Bildarratzek zuzentzen dauan sailean. Mondragon Unibertsitateko dekanoa izan da Pedrosa; baita, irakaslea eta ikertzailea be. Ibilbide luzea dauka hezkuntzan eta ondo ezetuten ditu hezkuntzaren beharrianak. **7. orrialdea**

SOINU HONEK
GUZTIA ALDATZEN
DU

“Hain da naturala, audifonorik ez daramadala dirudi”

Irteera
eskeintza

900€
arteko
AURREZPENA

*Eskeintza balioduna azaroaren 30a arte

Probatu ETXEAN
DOHAN 15 egunez

OLAETXE
AUDIO
ZENTRUA

Sabino Arana, 3
Igorre
T. 946 577 003

ENTZUMEN
ZENTRO
OFIZIALA

WIDEX®
DOITASUN HANDIKO AUDIFONOAK

Literatura txokoa

MOSKITO

Igor Estankonaren bueltea. Bere bosgarren lana. Urruneko eta gertuko: Afrika zein Igorre, Orozko zein Himalaia. Gizakion bizimoduari eragiten deusienak, neurri eta modu desbardinian: aberria, harremanak, aita izatea, atzean itxitakoa...

Estankonak bizipenai errepa-soa egiten deusenean, ez dau hareetan galduta geratzeko asmorik. Norberaren biografia errepasatzeko beharra besterik ez dau autoreak, norbanako guztiok sarri egiten dogun legez. Ez dogu ahaztu behar biografiak eta geure burua eten barik eregi eta birmoldatzen diran gelaxkak dirala, eta beti atea zabalik ixten dogula barriri be aldaketa eta konponketa txikiak egiteko.

Estankonaren liburuan askotarikoak daukie kabidea: Mauriziak, Karakolek, Dantek, Leonard Cohenek, Madrilek, Zeberio, Mexikok, Arteak... Mundu oparoa ondu dau idazleak, mikrofik makrora eta makrotik mikrora, baktxaren burua halakoz eta bestelakoz osatzen da-eta; hurreko eta urruneko gertakizunak, beste hainbategaz batera, harilkatzen dabe gizakia.


Gauza fina, ezlango zalantza barik. Generoan aise eta eroso dabil, baina erraztasun horrek badauka atzean asko eta asko landuaren aztarna. Bere jardunaren egundoko gogoeta nabari da Estankonaren lanetan: argi dauka poesia zer dan, zer izan behar dauan edo zer izan daiteken. Beste asko jauzika ibiltzen dira generoz genero. Igor Estankona poesian aritu izan da bere aldi guztian, eta

horrek badauka gauzak argi eta garbi izatea, eta horrez gain generoaren gordeleku eta bazterretan jakituriaz eta atrebentziaz jokatzeari.

Norberak harribitxiak aurkitzen ditu poema liburuetan, hortxe irakurle honek aurkitutako bat: "Hotza dakar, ohartu naiz amaren etxe zaharrea ez dela jadanik bizi maite dudana inor. Ez dabil deus. Mekanismo guztiak dira odol sikua eta haragi hila eta ahoa erori zait ilargiaren balde merkurioz betetakora. Bideo bat ikusten ari naizela ematen du behinola nirea zen herriarena: zergatik sufriarazten didazu horrela? Noiz hilko zara guztiz?".

Moskitoak zizt egin eta haren ziztadak zeharkatu egiten gaitue. Bada, Estankonaren moskitoak bardintsu egin eta luzerako erras-tua itxiko dau gugan.

Mikel Urkixo Aierdi



Igor Estankona

Moskito

Susa argitaletxea, 2020

96 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 12tik 18ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 19tik 25era

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Urri bi. 26tik zementziaren 1era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioria

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzio burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu,

Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia

(Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga

(Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



zertu
kultur elkartea

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gazoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Eldekorri



Eguraldi txarrak (lanparrak, hotzak...) ortuariari, adibidez tomatearen landareari edo mahatsaren orriari, eragindako kalteari eldegorri edo eldekorri esaten jako (eldekórrie, ahoskatuta). Bizkaiko hainbat lekutan eta batuan be gorrina da. Horrezaz gain, beste esangura hau be badau berba honek: oso kutsakorra dan gaixo infekziosoa, gure azalean mantxa gorriak eragiten dituana. Gaixotasun epidemiko hau umeen artean izaten da batez be. Batuan, elgorri erabilten da.

ERETXIA

Hobe hiltea baino

Zer egin bildurragaz COVID-19aren garaian? Oin dala egun batzuk, "zer moduz eskolan maskareagaz" galdetu eutsenean, zera erantzun eban Valentziako ume batek: "apur bat okerragoa da, ezin dozulako guztiz arnasea hartu, baina ez da ezer gertatzen, hobe da hori hiltea baino". Jente askori anekdota dibertigarria iruditu jakon, umorez eta positibotasunez betea. Nire ustez, tragikoa da adinbakoak naturalizau eta onartu izana, ezin dirala olgau, ezta alkar ikutu be; tragikoa normalizauta egotea, umeak kontralau bako eta txerorik bako birus hilgarri batek kutsatutako pertonez berba egitea. COVID-19aren kudeaketek umeengan izan ahal dituen ondorioak ikertzen hasita dagoz, eta seguru, ondorio horreek ez dirala oharkabean pasauko, ez umeentzat, ez beste inorentzat be.

Bildurra kontrol tresna da eta informazio lerratu eta lotura bako datuen artean eroso dabil; hildakoen zifretatik, positiboan zifretara pasau dira, birus karga bera eta kutsatu daikien sintomarik bakoan kopuruak agertu barik. Heriotzeari bildurra, azken finean. Bitartean, "ziurbakotasuna" bihurtu da gizarte eta hedabideen berbarik gustukoena. Bitxia da hau, ze Senekak esan eban legez, "ezer ez da heriotzea bezain egiazkoa"; edo "dana zalantzakoa da, heriotzea bakarrik da segurua" San Agustinek. Dana dala, eta hauxe da kakoa, berba gitxi egiten da esateko ez dala gauza bera bakarrik hiltea, laguntza medikoa ukatuta eta ezezagunez inguraturta, ala alderantziz. Osasun fisikoa bakarrik ez, psikologikoa be jopuntuan dago. Bizitzaren zaurgarritasuna eta hauskortasuna agirian geratu dira, baina zazpi hilabeteren ostean, bada garaia "ondoez horreek politizatze eta modu kolektiboan irakurteko, egiturazkotasuna identifiketako" Astrid Asenjok Estrategias Feministas para la Acción jardunaldietan esandako moduan.

COVID-19aren krisia, bat-bateko krisi harrigarria izango balitz lez hartu izan da, baina Yayo Herrerok dinoan moduan "gainjarritako krisia da, 2008ko krisiaren gaineko krisia, prekaridadearen gainean prekaridade handiagoa dakarrena" eta beraz, lehengo gizarte arlo berari eragiten deutso, ahultasuna eta desbardintasunak handituz. Egunero, txertoaren gaineko barriketaldiak entzuten doguz, Grial Santua balitz moduan; baina uste dogu akaso, txerto hori danontzako eskuragarri egongo dala? Osasuna be-



IANIRE DE LA CALVA
FeministAlde!ko kidea

tean, konfinamentu nuklear eta indibidualismo inposatu eta basati baten subjektu bihurtu gara; eta sortu diran gizarte-maila, erraza eta egoera geopolitikoaren araberrako, ni-tik abiatutako zainketen baliabide, alternatiba, sinisgarritasun eta kudeaketa desbardinen lekuko gara. Hori guztiori gainera, inoz ezetu ez dan ikusketa eta kontrol egoera baten pean hartu dogu gainean; goragoko ontasun batek bultzatuta, bai, baina baita hedabideak emondako ikuspegi desitxuratuak eragindako izuak bultzatuta be. Alde batetik sano egoera txarra eregi/margotu da, txarra dana, ez hain txar eta onargarritzat hartu dagigun; hau da, norbanakoaren askatasunaren murrizketak, txintik egin barik onartutako konfinamentua(k), egoera polizial autoritarioa, osasun kolapsoa, gobernuaren neurri errazistak, klasistak eta berandu hartu eta nahikoak ez diranak, baina hiltearen aldean, hain txarrak be ez diranak. Preminazkoa da onartzea kapitalaren egiturazko krisia bizi dogula, krisi soziala, zainketena eta ekosistemearena, osasun krisiaz gainera.

Mobimentu Feministek ohar-tu arazo eban (eta agendan sartu) zainketa sistema ikusezin, dobako/prekarizauta eta feminizatua jasanezina zala; baina sistemeak kolapsau egin behar izan dau agirian agertu daiten. Pandemia honek argi erakutsi dau zainketak ez dagozala politika publikoen erdigunean, ezta urrunetik be, kapitalean zentratuta dagozala eta ez funtsezkoan, baina aldi berean, zaintza lanak dirala guztiaren oinarri. Zer egingo dogu oin? Momentu honetan, autoantolaketea funtsezkoa da, baina gobernuak, itsu, ez ditue aintzat hartzean irakaskuntzako greba, osasun arloko protestak, kultura arlokoen mobilizazioak eta abar, eta saiatzen dira kapitala salbetan, eusten deusnan persona barik; ebatziak berandu eta txarto hartzean ditue, parte hartzaile ez diran prozesuetan.

Konkistautakoa barriro titulartara eta agerkarien azaletara ekarri behar dogu (indarkeria matxista, etxegabeteak, Mediterraneoan tragautakoak, errazakeria instituzionala, eta abar, COVID-19aren krisiagaz areagotu egin diranak, gainera). COVID-19aren osteko berreraikuntzaren inbersioa, Europar Batasuneko eredu ekonomikora eta autoritarismo neoliberalera bideratu beharrean, deseginda geratu diran oinarriko gizarte preminetara bideratuz, logika kapitalistea dinamizatze eta planetaren mugak agirian ixteko aukerea daukagu. Onartu daigun ziurbakotasun-marjina eta egin daigun pausu bat aurrera, alkarregaz eta modu kolektiboan.

netako eskubide unibersala dala? Txertoa kapitalizatze ikusten dogun burruka odoltsua ikusita, erantzuna begi-bistakoa da.

Gizarte mobimentuetan, nekatu egin gara talde-lanaz eta lankidetzaz berba egiteaz eta bat-ba-

***Erredakzinoan itzulia**

LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIA

Simetria

A1 eta A2 lagunak behin baino gehiagotan egiten dot berba simetriaren gainean. A1 laguna karratua da, figura guztiz simetrikoa, eta sufridu egiten dau asimetriaz inguratuta gagozala ikusita. A2 laguna, ostera, ez da asimetriaz konturatzen askotan, eta itsu-itsuan sinisten dau simetria egiatan existidu egiten dala.

A1 lagunari esaten deusat asimetria horregaz biziten ikasi beharko dogula, geure burua jagonda. A2 lagunari esaten deusat egoerai kanpotik erreparetako, asimetriagaz kontuz ibilteko. Ni neu nahiko abstraktoa naz izakeraz, eta abstrakzino horren barruan aguantetan dot asimetria nire bizitzan.

Halanda be, nik neuk argi daukat personon arteko hartu-emonetan ez dagoala simetriarik. Ez dago situazio simetrikorik beharlekuetan, kalean, familian, lagunartean. Ez da

inondik inora simetria egoerarik sortzean personon berezko ezaugarrien artean aldea dagoanean, berbarako generoa, edadea edo sensibilitate maila. Posizinoak beti dagoz alde batera edo bestera desplazatuta; gura barik, akaso.

Adituak dinoe gorputz geometrikoak simetria daukiela. Dakianari sinistu egin behar. Ostean, txitean-pitean pentsau izan dot simetria berbea asmau egin ebela, asimetria berbeak antonimoa euki egian.

ZERTZEAN



Alfredo

ALVARO RABELLI

Alfredori turbinak gustatzen zaizkio, turbina elektrikoak esan nahi dut; turbina elektrikoak eta emakumeak ere bai. Lehengo asteburuan, Urdazubiko errota batean, bere ametsetako turbina bikoitz zahar batekin topo egin zuen, alemaniar jatorriko turbina batekin. Miretsita gelditu zen hango generadore zaharrekin. Errota baino, gorpuzkinez egindako gizakiren bat berpiztu nahian dabilen ikertzaile zoro baten laborategi ajetsuaren antz handiagoa zeukan. Horrelakoxea izan liteke ondoko txokotik arto irinaren usainagatik ez balitz, zeren, filmetan ez dut ikusi munstroek talorik jaten dutenik. Azken batean, hura errota baino ez zen, gari eta arto pikorrek ehotzeaz gain, Baiona hirirako argindarra ekoizten zuen errota polit baina arrunt bat. Hodiak, turbinak, generadoreak, palankak eta fusible kutxak hautsez eta amaraunez apainduak, eta bere ikaskide baten hanka ederrak errotaren ardatzaren inguruan, minigonatik behera. Alfredo aspaldian etorri zen Zaragozatik, edo Guajanatotik, auskalo. Bertan egin zuen karrera, ingeniari-tza. Orain fusibleak aldatzen dizkio zentral nuklear zahar bati, baina izan, idazlea izan nahiko luke. Tarteka-marteka ipuinak idazten ditu, zentral nuklearreko kontrol-gela ezin aseptikoagoan zaintza luzeak egiten dituen bitartean. Gaur,

hondakin erradioaktiboak gordetzen diren igeritokira jaitxi da, uretan lozorro goxoan dauden zesio, radio, uranio eta plutonio arrastoak artatzera. Ez dute Alfredo batere kezkatu igeritoki zahar horrek dituen pitzadurek, momentu horretan pare bat ipuin on burura etorri zaio eta; gainera zentral nuklear zahar honen bizitza luzatzea erabaki dute. Beste hamar urte gehiago aspaldian itxita egon beharko zuen zentralerako. Horrela bada, urte horietan liburu bat, agian bi, idazteko denbora izango duelakoan dago, eta bere txandan lan egiten duen neska horren islak segituko du miresten; zein eder agertzen den alarma gorri guztiak pizten diren bakoitzean. Alfredo hizkuntza eskolara joaten da astean birritan, euskara ikastera. Kilimanjarorako bidean otu zitzaion euskara ikasi behar zuela. Horrela, idazten duen ipuin bakoitzaren txapelketa gehiagotara aurkez dezake, gaztelaniazko bertsioa batera eta euskarazko bertsio bera beste batera. Berak dio bere buruari plagioa egiten diola. Baina, seguru asko, Alfredo ezagututa, eskolako neskenegatik joaten dela. Begira gelditzen zaie, eta ingeles azentuz inortxok ere ulertzen ez dituen euskarazko berba goxoak egiten dizkie.

Orduan, Alfredoren begiak zentral nuklear baten kontrol-paneleko alarma gorriak bezalakoak dira.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Bart, ohera joan aurretik haginak garbitzera joan nintzanean, munstro bat topau neban konketako isurbidearen bestaldean. Zuloetatik etxera sartzeako lar handia zan bare bat egoan txapara itsatsita.

Munstro haretatik etxea defendidu behar nebala pentsau neban eta hil, edo etorritako bidetik joan eiten, lexibea bota neutsan, botilea amaitu arte. Defendidu zan barea, bere gorputzak botaten dauan jaria-kin likinagaz. Cillit Bang-en bila joan nintzan gero eta ugari bota neban. Eta lotara joan nintzan.

Nire sorpresarako, goizean, han jarraitzen eban bareak, temoso. Nik uste baino indartsuagoa zan, antza. Hori daukie munstroak, ez dirala erraz gaingitzen: biktimearen alderik makalena ezetuten dabe eta handik sartzean dira, hondamendia eraginez. Baina neuk be argiago neukan nire posizinoa: etxean sartzea bakarrik ez, konketan isurbideko txapari pegauta egotea be ez neban gura. Armak amaituta neukazala iruditu jatan, ha-ta guzti be. Baina bat-batean, soda kaustikoa topau neban etxean. Ez nik erosit, baina hantxe egoan. Batzuetan, uste baino baliabide gehiago topatzen doguz munstroak presente dagozanean. Bota neban soda kaustikoa eta armozau ostean ura irakiten. Litroak eta litroak. Munstroa desagertu egin zan.

Baina bizitzak ez dau tregorarik emoten, beste munstro asko dagoz, barea baino handiagoak. Horreek be garaituko doguz.



Gorosti
S. Coop.
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa
hagin klinikea

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre - Bizkaia
T. 94 631 50 39

Kolegiatu Zerbaki: 900
R.P.S. 31/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPERA

Elizalde, 33 D - 1º B · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 62 · 606 654 018

Igorreko girorik onena!

Troka

Lehendakari Agirre 10

ARRATIA

Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak 2020-2021 ikasturte barrirako programazinoa aurkeztu dau

Zinea, argazkigintza, feminismoa, elektrizitatea, sukaldaritza... gai ugari beti be feminismotik landuta.

Erredakzioa

Izena, ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arte emon ahal izango da Arratiako Udalen Mankomunitatean.

Andra zaharrai zuzendutako Grisa eta Morearen saio bategaz hasiko da programazinoa, *Cloudburst* pelikule-agaz, hain zuzen be. Aurten Grisa eta Moreak pelikulak aukeratu ditu zahartzaro feministearen gaineko hausnarketea bideratzeko. Urri bigarrenaren 27an izango da, Arteako Kultur Etxean 17:30ean. Zezeilaren 15ean dago aurreikusita Grisa eta Morearen bigarren saioa; orduan, *Las cinéphilas* filma ikusteko aukerea egongo da.

Lehenengo tailerra barriz, Diman izango da hilaren 30 eta 31n. Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel kazetari, antropologo eta idazleak gidatuko dabe. Feminismoa eta euskerea "non kurutzatzen diran, ze ezaugarri partekatzen dituen, batak bestetik zer ikasi leikien eta bien arteko aliantzak ze esparru zabaltzen dituen" landuko dabe urri bigarreneko atzen bariku-zapatuan ikastarora hurreratzan diranak.

Feminismoan sakontzen

Feminismoan sakontzeko hainbat ikastaro eskaintzen ditu Ilgoranek 2020-2021 ikasturterako. Holan, agroekofeminismoaren barri emongo dabe Etxaldeko andrak, zemendian, Artean; Tere Maldonado egungo feminismoaren zereginen gainean jardungo dau Bedian, abenduan; hilekoaren kultura eta ekonomia feminista jorratuko ditu Enara Iruretagoienak zezeilean Lemoan; *Autodefensa feminista* ikastaroa egongo da Areatzan, zezeilean, eta ahizpatasun kontzeptua ondoizatea lortzeko estrategia moduan landuko da aprilean, Diman, Edurne Epelderen laguntzeagaz.

Gainera, anonimotasunetik ereduak atera eta autonomia landutako ikastaroak egongo dira. Holan, identitate narratiboak bilatzeko, Idoia Carramiñana idazleak, *Islarik gabeko ispiluak* izeneko ikastaroa emongo dau zemendian, Areatzan; Monica Nuñezegaz, partaideak miresten dabezand andra anonimoai esker oneko ekitaldia sortuko deutsee urtailetik martia arteko ikastaroan, Zeanurin; elektrizitatea tailerra urtaillean izango

da, Lemoan Auri Vallejoren eskutik; Marta Miramonek sukaldaritza begetariano ikastaroa emongo dau urtaillean hasita Arantzazun, eta argazkilaritzaren bitartez, norbere burua ezetu eta ahalduntzeko aukerea egongo da, Adirane Azkuenaga formatzaileagaz, martia eta aprilean, Ilgorren.

Mendia

Mendirako zaletasun handia dago Arratian eta mendian andren autonomia bultzatzeko aukera bi eskaintzen ditu Ilgoranek. Iparorratza eta mapak erabilten ikasi eta gau baten mendian lo egiteko aukerea eskainiko dau maiatzean Laura Ruiz eta Garazi Santos trebatzaileak emongo daben ikastaroak.

Andra ez kirolari eta nagiak mendiaz gozatzeko ibilbide osoak ekimena be badago. Hilean behin urteker bat egingo dabe partaideak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Altxa! Erabakitzearen aldeko ekitaldiaren proiektuzinoak hilaren 31n

Hamaika Gara ekimenak, martiaren hasieran aurkeztu eban erabakitze eskubidea eskatzeko erreferendumaren aldeko egitasmoa.

Erredakzioa

Osasun krisiak eten egin ebazan programautako ekitaldiak eta oin, "hamaika errazoi gehiago pilatu ditugula burujabetzan sakontzeko" eretxita, urri bigarrenaren 31n Durangoko Plateruenean grabauko dabe Altxa! izeneko ekitaldi politiko eta kulturala. Ekitaldia, *hamaikagara.eus* webgunean, eta herrietan antolatutako zuzeneko emonaldietan ikusi ahal izango da 18:00etan.

Amalur Alvarez eta Josu Etxaburu Gure Eskuren bozeroaleen arabera, ekitaldiaren izenak, egitasmoaren leloari egiten deutso erreferentzia; "Altxa, sinatu, erabaki" leloari hain zuzen be. Beste batzuen artean, Erika Olaizola, Iraia Elias eta Laura Penagos aktoreak, Amests Arzallus bertsolariak eta Eñaut Elorrieta eta Dupla taldeko musikariak hartuko dabe parte ekitaldian.

Altxa eta sinatu

Erreferendumaren alde sinatzea inoz baino beharrezkoagoa ikus-

ten dabe Gure Eskuren eledunak. "Osasuna, langabezia, zaintza edo hezkuntzari behar bezala erantzun ahal izateko erabakimen handiagoga behar dogu herritarrok". Horregaitik, erreferendumaren aldeko sinadura bilketari ekin deusie barriro.

Tripontzi komiki digitala

Tripontzi: burujabetzaren bidean istorio sorta digitala, Ane Labaka eta Nerea Ibarzabalek sortutako zazpi istorio osotuten dabe. Marrazkiak Unai Gaztelumendik egin ditu. Komiki digitala eskuratzeko kodea daukien txartelak erosi daitezke herrietako denda eta tabernetan. Kodea erosi dabenen artean, 94.000 euro zozketatuko ditu Gure Eskuk.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eskualdeko dozenaka entidadek hartuko dabe parte Euskaraldian

Zemendiaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa dan Euskaraldiaren bigarren edizino.

Erredakzioa

Lehenengoa 2018an izan zan eta milaka lagunek hartu eben parte ahobizi eta belarriprest moduan. Aurten, norbanakoez gainera, entidadeak be parte hartzea gura izan dabe antolatzaileak, euskera erabilteko ohituretan beste eremu batera be ailegetako. Parte hartzeako entidadeak izena emon dabe urri lehenengoan. Norbanakoen izen emotek zabalik jarraitzen dau zemendiaren 19ra arte, Euskaraldia hasiko dan egunaren bezpera arte, hain zuzen be.

Areatzan, batzarra antolatu dau Euskaraldia Batzordeak hilaren 15erako, 19:00etan.

Artean, arigune gehien osotuten ahalegindu da Batzordea. Egoera kontuan izanda, entidade nabarmenenak parte hartzea lortu dabe eta oin banakakoen parte hartzea bultzatzeko lanean dihardue.

Bedian entidade bik emon dabe izena. Bediako antolatzaileak zezeilean hasi ziran entidadeak beharrean eta berbaldi bi emon dabez entidadeak parte hartzean animetako.

Ilgoren, datu eta estadistikez

aparte, urteko 365 egunetan euskeraz egitera jentea animetea daukiela helburu azpimarratu gura dau Euskaraldiaren Batzordeak. Informazinoa emailaz edo-eta aurrez aurre emon jakie dendari eta ostalari. Oin bideo bat grabetako asmoa daukie, herriko ahobizirik eta belarriprestak, beste batzuk be parte hartzean animetako.

Lemoan 26 entidade gehitu dira Euskaraldira eta Lemoako erronka nagusia herritarren aktibazinoa dala dinoe antolatzaileak. Helburu horregaz, itxialdian Kike Amonarriren berbaldia emon eben *streaming* bidez eta herri batzarra egin eben urri lehenengoaren 22an. Entidadeen izen emotea sustatzeko be egiten dabe behar eta izena emon dabenen ostalari eta merkatariak hizkuntza-paisaia bermatzeko

lanean dihardue. Datozen asteetan, norbanakoen izen emotea sustatzeko, herrian egiten diran aurrez aurreko ekintzetan izena emoteko mahaia ipiniko dabe. Berbalagunak be egingo dabe ekintzaren bat oindino zehaztu barik dagoana.

Zeanurin, 20 bat arigune sortuko dira izena emondako entidadeetan. Jentea izena emoten animau daiten, bideo bat egiteko asmoa daukie.

Zeberion, 14 entidadek emon dabe izena eta ariguneen lanetan jardun dabe hile honeetan. "Arigune izan daitezkean entidade guztiak batzar batera deitu genduzan eta aurtengo Euskaraldiaren nondik norakoak azaldu genduzan. Norbanakoai jagokienez, sare sozialen bidez izena emoteko prozedura zein dan zabaldu dogu" azaldu deutso BEGITUARI Jon Bollar Zeberioko Euskera Teknikariak.

Oin entidadeen ostean, ahobizi eta belarriprest moduan, jentek

izena emoteko momentua heldu da. Batzordeak, kalera urten edo bideoak zabalduko dabez sare sozialetan, ahalik eta jente gehienak emoteko izena. Izan be, euskeraz gehiago, gehiagogaz eta gehiagotan egitea da helburua.

Euskaraldiaren hasikerako ekitaldiak

Guztietan ez bada be, herri batzuetan, Euskaraldiaren hasikerako ospatuko dabe zelan edo halan. Bedian, barbarako, zemendiaren 23an, Lankuren *Txor-txor* umorezko bakarrizketea egongo da frontoian. Lemoan, zemendiaren 16tik 22ra kirol astea izango da. Beraz, euskera eta kirola gaia hartuta zerbaist egiteko asmoa daukie Lemoako Euskaraldiaren antolatzaileak. Zeberion ezer berezirik egingo daben ala ez oindino ez dabe ebatzi, baina egitekotan, "zeozer xumea izango litzateke, gure asmoa euskera egunerokotasunean normaltasunez sartzea da-eta".

ARRATIA

Ingurumen aldetiko Arratiako hainbat puntu baltz identifikatu dabez

Erredakzioa

Oin dala hilabete batzuk, Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak, puntu baltzak identifiketako dinamika bat ipini eban martxan, eskualdeko ingurumenaren egoeraren ikuspegi orokor bat izateko eta dagozan arazoari urtenbidea emoteko.

Jenteak daborduko Igorre, Zea-nuri, Dima eta Lemoako hainbat puntu baltz identifikatu ditu. Horretan lagunduteko, makatzak@gmail.com helbidera idatzi edo euren Facebook kontuan dagoan galdetegia bete daiteke.

Oin arte galdeketa parte hartu dauan jenteak identifikatutako puntu baltzak, besteak beste, hurrengoak dira: saneamentu sarerik ez dagoala leku batzuetan; N-240 errepideko trafikoa; Lemoako zementu fabrika errauskailu moduan erabiltzen dala; pinu eta eukalipto landaketak;

ARRATIako
PUNTU
BALTZAKGALDE
TE
GIA

Badakigu hainbat eta hainbat dirala Arratiako txoko desbardinatzen dagozan eta kezkatzen gaituen puntu baltzak ingurumenari jagokonez: plastikoz betetako erreka, eukalipto eta pinu landaketak, errepide bazterretako panpa bedarrak, aire kalidadea, astegoienetan sortutako dan satsa, N-240ko trafikoa...

Makatzak Arratiako Ekologistak herritarrok ezetuzen doguzan puntu baltz horreek identifikatu gura doguz, gure eskualdeko ingurumenaren egoeraren ikuspegi orokor bat izan eta urtenbidea emoteko.

Lan honetan lagunduteko hurrengo aukerak dekozuz:

 makatzak@gmail.com
helbidera idatzi

 Makatzak Arratiako Ekologistak kontuan argitaratutako galdetegia bete



Arratiako herriak lotuko dituan bigorri baten beharra; plastikoa erretan; matarrasen inpaktua

basoetan; satsen kudeaketa eskasa eta landara espezie inbaditzaileak.

LEMOA

Iñaki Bilbao preso lemoaztarra urten da kartzelatik

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 1ean, 28 urte preso egon ondoren, libre urten zan Iñaki Bilbao Beaskoetxea lemoaztarra Valdemoroko kartzelatik. Aurtengo urri lehenengoan epaitu eban Bilbao azkenengoz eta kausa horren epaia artean jakitera emon barik egoan arren, kartzelatik urten zan.

Epaia, urri bigarrenaren 8an emon zan jakitera. Horren arabera, Auzitegi Nazionalak 74 urteko kartzela zigorra ezarri eutsan Bil-

baori 1983ko Ordiziako Guardia Zibilaren kontrako atentaduagatik. Atentaduan, guardia zibil bat hil zan eta be aste bi zaurituta geratu ziran. Iñaki Bilbaok libre jarraituko dau, legeak ezartzen dauan gehieneko kartzelaldia, beteta daukalako. 1992tik 1999ra Frantziako kartzelatan egon zan eta hurrengo urteetan Espainiakotan. Zigorra beteta eukanean eta espetetik urten behar zanean, Ordiziako kausagaitik prozesamentua jaso eban eta kartzelaldia luzatu jakon.



AREATZA

Ludotekea eta udal bulegoak zabalik



Erredakzioa

Urri bigarrenaren 5ean zabaldu zan ludotekea funtzionamentu barriagaz. Ludotekako txandak eskolako talde txikien arabera antolatu dira. Egun bakotxean talde itxi batekoak joaten dira txanda bakarrean. Momentu bakotxean indarrean dagozan osasun neurri guztiak beteko dira.

Udal bulegoak be zabalik dagoz baina joateko alde aurretik hitzordua hartu behar da. Premi nazko kasuetan, hitzordu barik be emongo da arrete. Ha-ta guzti be, ezin izango dira sartu COVID-19agaz bateragarriak dituen sintomak daukiezan personak edo PCR bat egiteko zain dagozanak.

Ludotekara zein udal bulegoetara joateko protokoloak udalaren webgunean konsultatu daitezke.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eguraldia dala-eta, maiatzera atzeratu dau Sarek mendietara igoteko Izan Bidea ekimena

Erredakzioa

Hilaren 3rako eukan antolatuta Sarek, Euskal Herriko 650 ton-torretara igoera, tartean gure eremuko 26ra, Izan Bidea ekimenaren barruan euskal preso eta igeslarien alde, baina iragarrita egoan eguraldi txarra dala-eta, datoren urteko maiatzaren 8ra atzeratzea ebatzi eban antolatzaileak.

Argazkiak herrietan

Tontorretara jentetik igon ez bazan be, herrietako plazetan argazki jentetsuak egin ziran hilaren 3an, eguerdian. Arantzazun 17 lagun batu ziran, Areatzan 29, Artean 20, Diman 70 inguru, Lemoan 50 inguru, Ubiden 28, Zea-nuri 35 inguru eta Zeberion 36. Bariku arrastian, hilak 2, egin eban argazkia Zeberion.



Diman batutakoak.



Ubiden batutakoak.



Zeberion batutakoak.

AREATZA

Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuorde izentau dabe

Erredakzioa

Begoña Pedrosa Areatzakoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuorde izango da Jokin Beldarratzek zuzentzen dauan saillean. Mondragon Unibertsitateko dekanoa, irakaslea eta ikertzailea, Pedrosak ibilbide luzea dauka hezkuntzan.

Ingelesean lizentziaduna eta Hizkuntzalaritza Aplikaduan doktorea da, eta 18 urte daroaz Mondragon Unibertsitatean lanean. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa izan da 2014tik.

Mondragon Unibertsitateak bere webgunean jakitera emon-

dakoaren arabera, Pedrosak hezkuntza barrikuntza, eraldaketa eta digitalizazioa izan ditu ardatz, dekan lanetan. Unibersidadeko gradu eta masterretako produktu akademiko barriak sortzea bultzatu dau, baita unibersidadearen eta eskolearen arteko ikerketa kolaboratiboa be. Irakasle moduan, hainbat barrikuntza proiektu koordinatu ditu Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazinoko graduetan. Dokorego-programearen eta ikerketa-mahaiaren kudeaketan be parte hartu dau. Eta ikertzaile legez, hizkuntza gitxituak eta ikasleen estrategia pedagogikoak landu ditu, besteak beste.



Begoña Pedrosa.

IGORRE

Kiroldegiak hilaren 15ean zabaldu dauz atea

Erredakzioa

Osasuna bermatzeko neurriak hartuta, martiatik zarratuta egoan kiroldegiak zabaldu dauz atea urri bigarrenaren 15ean. Instalazioak erabilteko aurretik txanda hartu beharko da. Erreserbak telefonoz egin ahal izango dira egun bi lehenagotik.

Zerbitzu bakotzak hasikerako ordu bat izango dau eta ordubete txandetan emon ahal izango da izena. Txanda bakotxari jagokon orduan zabalduko jako atea. Temperatura hartuko jakie erabiltzailei. Sauna eta komunak zarratuta egongo dira eta aldagelak igerilekuaren erabiltzaileak bakarrik erabili ahal izango dabez.

Maskarearen erabilera derigorra da eta makinara ailegau arte aldean eroan behar da. Makinetan, ariketea egiteko, kendu daiteke. Makinak segurtasun distantzia gordetzen dabe.

Urteteko frontoiko atea erabili behar da.

Aforo mugatua

Txanda bakotxean gehienezko kopuru bat dago, ariketea edo-eta espazioaren arabera, desbardina dana. Holan, gimnasioan, txanda bakotxean, gehienez 10 persona egon daitezke; igerilekuan, 4, eta spinning egiten 6 persona gehienez.

Ikastaroen zerrendea eta izen emotearen barri, urri bigarrenaren zehar jakinarazoko dabe udal iturriak.

Frontoia

Goizetan, institutuak eta eskoleak erabiliko dabe frontoia, eta arrastietan pelota klubak. Libre geratzen dan orduetan erreserbau daiteke.

Diru itzulketak

Kiroldegiak zarratuta egon dan denporeari jagokon kuota zati proportzionala itzuliko da; hau da, martiaren 14tik urri bigarrenaren 15era bitarteko bonuaren zati proportzionala.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hiru egunetako greba deialdia eskoletako janlekuko beharginentzat

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 21, 27 eta 29an, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak, ikastetxe publiko, itunpeko eta pribaduetako janlekuko beharginak grebara deitu ditue. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta hezkuntzako

patronalari sindikatuakaz biltzeako eskatu deutsee lan baldintzak eta langile eta erabiltzaileen osasuna bermatzeko eta kalidadezko zerbitzuak antolatzeko. Sindikatuak inprobisazioa eta langile faltea salatu dabe; baita, aurreko ikasturteetako ratioak dituela, talde egonkorren eta espazioaren be-

harrai jaramonik ez deusiela egingen nabarmendu be egin dabe.



ARRATIA

Gaikako bilketea %30 inguru baino ez da Arratian

22/2011 Legearen arabera, 2020rako satsen %50

gaika jaso eta berrerabili edo birziklau egin behar

da, baina AUMk BEGITURI adierazotakoaren arabera,

Arratia sano urrun dago hortik, %30era be ez dalako

aillegetan gaikako bilketea. Hori dala eta, etxe eta

merkataritzako hondakinen ordenantza bat onartu

dau AUMk.

Erredakzioa

Aurreko ordenantzea 1992koa zan eta ez ebazan hurrengo legeak ezarritako eta indarrean dagozan helburuak jasoten. 2016an, araudi guztia, Europakoa barne, jasoten eban ordenantza eredu bat egin zan EAE mailan, eta AUMk hartu, aztertu egoera eta baliabideak, eta egokitu egin ebala azaldu deutso BEGITURI Aitor Uriguen AUMko Ingurumen Zerbitzukoak. Egokitzapen horretatik sortu zan oin onartutako ordenantzea. Bertan esaten da hondakin bakotxa bere eukiontzira bota behar dala, "ez da borondatezko gauza bat, derrigorrezkoa da". Zortzi eukiontzi dagoz eta bakotxean jagokon hondakina bota behar da.

Birmoldaketa beharra

Egindako azterketan ikusi zan gaikako bilketea handitzeko eukiontzien kokapenaren birmoldaketa bat egin behar dala. "Herri txiki eta auzo guztietan, gitxienez, bost eukiontzi desbardin egon behar dira: beira, papera, ontziak, organikoa eta errefusa, eta horrek suposatzen dau zentralizau egin beharko dirala" satsa botateko puntu batzuk. Hau da, eukiontzi gehiago ipini beharko dira, baina kasu batzuetan "ez hain ate ondoan". Dana dala, jente guztiak

eukiko dau aukerea hondakinak jagokozan eukiontzietara botateko.

Organikoa, kakoa

Zerbitzuak be zabaldu egin beharko dira eta organiko guztia batera jaso ahal izatea, eta ez, oingo moduan, landara jatorrizkoa bakarrik, kakoa dala uste dau Uriguenek. Bizkaian, 2022rako aurreikusten da 5.000 baino biztanle gehiagoko herrietan egongo dala zerbitzu hori. "Orduan bilketa selektiboaren porzentajea asko igoko da. Azken finean organikoa satsaren %40-42 da. Dana bota ezker, ia lortu daiteke helburua eta gero beira eta papelagaz lortuko litzateke %70era heltzea.

Hori lortu da hainbat herritan".

Gainera, satsen kudeaketearen gastua murriztu egingo litzateke. Izan be, zabortegira, errauskailura edo bota behar dan lekura bota baino lehen, tratau egin behar da satsa, eta errefusa tona bategaitik 90-92 euro pagau behar ditu AUMk; organikoa tratategaitik, barriz, 50 euro. Eta pisu handiena daukan satsa, organikoa da. Organiko dana konpostau daitekeenean, dirua aurreztu eta zerbitzua hobetu ahal izango dala uste dau Uriguenek.

Satsa murriztea garrantzitsuena

Baina gaikako bilketea ez da nahikoa arazoa konponduteko, satsa murriztu egin behar da. Horretarako, beste gauza batzuen artean, erantzukizunez erosi behar dala dino AUMkoak. Ez da erosi behar oso ontziratuta dagozan gauzak, ezta behar ez dana be. Izan be, "erosten dogun jatekoaren %30 bota egiten da".

Helburua satsaren pisua 2020an %10 murriztea da; 2025erako %13 eta 2030erako %20. Horretarako AUMk kanpainak egingo ditu, baita batzarrak be, auzoetan danon artean helburuak lortzeako. "Betebeharra da eta bete ezean, AUMk eta udalak penalizazio bat ordaindu beharko dabe" dino Ingurumen Zerbitzukoak.



PANDEMIAK

Aurreko pandemiak

Gizakiaren historia pandemiaz beteta dago. Antxinatean, Erromako Inperioan geldituko gara momentu baten: 165 eta 180 urteen artean Antoninoen izurritea izenekoa gertatu zan. Garai horretan munduan egoan inperiorik handienez, Erroman, populazioaren herena hil zan pandemia harez. Soldadu legionarioak ekarri eben gaixoa, hain zuzen be Ekialde Hurbilean gerrea egin ostan. Erroman bertan sarraskia sekulakoa izan zan, jente asko bizi zalako koncentratuta Inperioko uriburuan. Tragedia haren amaieran Inperioa eta Erroma ikututa gelditu ziran, galera ikaragarriak egon ziralako.



Osasun neurriak hartzean 1918ko gripearri aurre egiteko.

Angel Larrea Beobide

Ondorengo gizaldietan be, XX. mendera arte, izurriteak eta pandemiak sarritan agertu dira kalte itzelak eraginez biztanleriaren estamentu sozial guztietan. Europako historian ohar berezia merezidu dabe Erdi Aroan izurrite bubonikoak eragindako hurrengo bi honeek: Bata, 541-543 urteen artean, Justinianoaren izurritea deitua eta, larriena, 1347-1351ko pandemia, izurrite baltza deitua. Kalkuletan da hamar personetatik hiru hil ziralako gure kontinentean bost urte hareetan. Itsaso Baltzaren iparraldeko Krimea inguruan egondako gerra batetik hasi zan. Tartaroak, alde batetik, eta Geno-

va, Italiar Peninsulatik joandako merkatariak bestetik, burrukan ibili ziran. Tartaroak arratoiak sartu ebezan genovatarren itsasontzietan eta arratoiak infekzioaren bitartekari bihurtu ziran. Izurritea laster zabaldu zan Genova eta Europako beste itsas portu batzuetara be, gerran egondako parte-hartzaileak etxera bueltau ziran. Izurrite hau sufriduten ebenen azalean anpoila handiak agertzen ziran; horrexegaitik, izurrite bubonikoa deitzean zan. Gaixotuen eta infektaduen kopurua arin handitu zan, jentea ez egoalako prest gaixoari aurre egiteko. Heriotza krudel hau sufridu ebenak milaka eta milaka familia izan ziran Europako herrialde ge-

hienetan (Euskal Herrian be txiki-zio galanta eragin eban).

Ondorioz, biztanleria nabari gitxitu zan urietan; bildurra eta mesfidantzea leku guztietara zabaldu ziran. Salbau ziranak, etxeetan gordeta edo konfinamentuan egon ziralako salbau ziran. Bizirik urtetea lortu ebenak, halanda be, askoz ahulago eta pobreago atera ziran. Holan kontatzen dau *Decameron* izenburuko liburuan F. Boccaccio-k, Florentziako idazle ospetsuak.

Euskal Herriko historian sartuta, aitatu behar da XVI. eta XVII. mendeen artean, 1599-1601 urteen artean gertatutako izurritea (izurrite Atlantikoa edo lanearen izurritea be deitua). Izurrite ho-

nen eragin demografiko negatiboak handiagotu egin ebezan orduko gizartearen arazoak, batez be euskal lurraldeetan bizi zan ekonomiaren krisia. 1598ko uda oso beroa izan zan, eta sikate gorri horri negu hotzak segidu eutsan. Hurrengo urtean jada ahulduta eta makal egoan gizartean sartu zan izurritea. Gaztelan be oso zabal eabilen jada izurritea. Hortik, euskal kostaldean izugarri gogor jo eban, batez be itsas portuetan, Gaztelako lanea edo artilea handik esportetan zalako Flandes aldera.

Pandemia-urteak une gogorak izaten ziran. Esandako atzerapen ekonomikoari gehitu egin behar jakoz beste ondorio batzuk: esate baterako, "errudunak, arerioak edo sospetxa txarra" sortzean eben personenganako kritikea, tratu txar eta zigorrak. Haserreari, miseriari edo zoritxarri urteke-rea emoteko purgak eta mendekuak ugaritu egin ziran. Hona hemen adibidez bi honeek: 1347-51ko pandemiaren osteko hamarkadetan, sorginen eta juduen aurkako persekuzioak gero eta larriagoak izan ziran Europan; eta Euskal Herriko 1599-1601eko izurritearen osteko urteetan sorginen aurkako Logroño-ko epai-prozesuak egin ziran. Denpora tristeak eta ilunak izan ziran, gainera, aurreko akatsetatik ikasi beharrean, errepikatu egin ziran zoritxarrez.

Goazen, saltu bat eginez, XIX. mendera arte. Bizkaian eta Bilbon pasau zana aztertze. Infekzioa

sortzean daben gaixoak birusaren bidez (gripe, barizela...) edo bakterien bidez (kolera, tifus...) transmitiduten dira oso erraz, batez be, jente asko pilatzen dan lekuetan. Garbitasunik ez danean edo ur edangarriaren kalidadea ona ez danean, kolera morbo deiturikoak hainbat hildako eragin ebezan gure inguruan. Lehen epidemia handia 1834ko urtean heldu zan Bizkaia, Guerra Karlistaren garaian konkretuki, hau da, momentu oso desegokian. Geroago, beste epidemia bi gehiago izan ziran bilbotar eta bizkaitarren artean: 1855ean, hain zuzen be, Arratia inguruko datuak oso larriak izan ziran Diman, Igo-rrin, Ubiden, Zeanurin... Areatzan egindako txosten baten hauxe irakurtzen da: "kolera epidemia latzaren ondorioz gertatutako kalteak lagunduta, urian beharra aurkitzeko aukerak gora egin dau...". Bigarrenak, 1893koa, Bilbon persona ahulenen artean jo eban gehienbat. Hiru plaga izan ziran. Espainia mailan, baina, lau kolera pandemia egon ziran XIX. gizaldian: 1885ekoak, kasurako, eragin gitxi euki eban gure lurraldean. Pentsau leiteke bada, kolerearen gaixoa endemiko edo kroniko bihurtu zala.

Oin arte komentutakoak Euskal Herriko historian zehar bertakoai kalte gehien ekarri deutesnak izurrite bubonikoa eta kolera morbo izan dira. Hirugarrena faltetan jaku: gripe espainarra edo gripe handia deitua, oin dala ehun urte, 1918-1920



begitu

**Oin Estudio Duendek BEGITUrako
publizidadea diseinatzen deutsu.**

Publicidade eskusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publicidadea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.



Bulegaria beharren 1918ko pandemian.

urteetan mundu osotik zabaldu zana. Historian egon dan pandemiarik handiena izan dala esaten da. Jatorria zehatz jakin ez arren, Lehen Mundu Gerraren amaieran soldaduak frontetik euren etxetara bueltau ziranean hasi ziran lehen heriotzak. Pandemiaren bigarren olatua hurrengo urtean heldu zan, 1919an. Jentea guztiz ahulduta egoan legez, efektuak bildurgarriak izan ziran. Hildakoen artean ez zan nabaritzen desbar-dintasunik, ez zan inor salbetan, bardin zan umeak, zaharrak, helduak edo gazteak izatea; animaliak be (txakurrak eta katuak) bardin tragetan ziran. Guztira, 50 miloe persona gitxi gorabehera, hil ei ziran. Katakismo demografikoa bihurtu zan, benetan. Epidemiologoak izentautako A gripeak, influenza motako honek, arnas sisteman joten eban, espazio zarratuetan edo gitxi haizetutako leketan, sano arin harrapatzen zan, neumoniak eta beste patologia batzuk sortuz.

Pandemiaren eragina kalkulaezina izan zan, efektu psikologikoez gainera, familia osoak desagertu ziran, herriak be hutsituta gelditu ziran hainbat tokitan... Zoritxarreko gripe hau 1921. urtean amaitu zanerako, gizartean barriro be biziteko gogo itzela biztu zan, eta ondorioz egoera ekonomiko oneko "hogeigarren hamarkadako urte zoriontsuak" etorri ziran.

Azken hamarkadetan, atzera be, gripegaz erlazioautako pandemiak estragoak egiten hasi dira, Asian gehienbat (Txinan zehatz-mehatz esanda). Baina Historiak erakusten deuskun legez, lehenagoko pandemiak gaurkotu edo gaurkoak egin dira. Inoz ez dira desagertu. Gure artean daukagun honek ere ezagurri bardinak ditu: infekzino masiboak, heriotzak, gaixotuak sekuelakaz... Denporeak esango dau, baina gehien sufriduko dabenak, betiko moduan, gizarteko talde apalak, jente xumea eta herrialde pobretuak izango dira.

EUSKARALDIA

gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

Azaroaren 20tik
abenduaren 4ra

IZENA EMON:
euskaraldia.eus
web orrian
Irailaren 24tik
aurrera

Igorren
euskeraz 365
egunetan!

AHOBTZI

BELARRI PREST

LEMOA 946 31 44 06 ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI 946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BANATZAILEA

MANITOU
HANDLING YOUR WORLD

filippini GENERATING SETS Nilfisk JCB MANITOU HANDLING YOUR WORLD CTX CONTAINEX TeknoDidaktika Formazioa Pribatua en PRL HIKOKI POWER PRODUCT GENERGY MASTER CLIMATE SOLUTIONS INSTANT UPRIGHT QUALITY & STRENGTH YOU CAN TRUST

PELOTEA

Ekhi Ziarrusta eta Inhar Ugarte Donibane Garaziko trinketeko finalean

Erredakzioa

Endaiarrak taldeko Ekhi Ziarrusta dimoztarra eta Inhar Ugarte getoztarra, finalean izango dira, Anchordoqui eta Palomes-en kontra jokaturako finalerdietako partidua 40-20 irabazi ostean. Finala hilaren 26an jokatu dabe Darmendrail eta Alcasenaren kontra.

Finalerdietako partiduan, hasikeratik amaiera arte, aurretik joan ziran bizkaitarrak eta 50 minutu baino ez ebezan behar izan amaituteko. Izan be, partidua guztiak amaitu dabez ordubete baino arinago. Finalean, txapelketako pelotari gogorrenak izango ditue aurrez aurre baina Ziarrusta eta Ugarte saiatuko dira euren jokoa egiten eta txapelketea irabazten.

Txapelketa ezin hobea

Donibane Garaziko Ehiztarien Txapelketa honetan, amateurrek



eta profesionalak batera jokatzen dabe. Ziarrusta eta Ugarte biak amateurrek izanda, erronka gogorra dala dino Dimako pelotariak. Ha-ta guzti be, kanporaketak erraz pasau ditue. "Azken urte biotan lortu dogun gauzetako bat, maila hobetuteaz aparte, maila oneko pelotarien kontra gustura jokatutea da, erritmoa geuk ipintea eta geure jokoa plazaratzea. Hortxe dago gure arrakastaren klabea" azaldu deutso BEGITURI Ziarrustak.

ZIKLO-KROSA

Igorreko Ziklo-krosaren 44. edizioa bertan behera geratu da

Erredakzioa

Berrogeta hiru urte jarraian hutsik egin barik egin ostean, osasun krisia dala-eta, aurten bertan behera ixtea ebatzi dau Arratiako Ziklista Elkarteak (AZE) Igorreko Ziklo-krosa. Urrietan jokatzea zan txirindularitza eskolen denporaldi amaierako proba probintziala be ez da jokatu.

Urtero abenduan jokatu izan dan Igorreko Ziklo-krosa bertan

behera ixteko ebatzia pena handiz hartu dabela dino Juan Mari Zurinaga AZEko presidentea, baina "lurralde osoan sortutako berragerraldien ondoren" eta ezin izango zanez osasuna %100ean bermatu hartu dabe ebatzia. Urtailean, AZEn beste batzar bat egingo dabela 2021eko lasterketak ebatzeko, azaldu deutso BEGITURI.

Ha-ta guzti be, beste lasterketa batzuetan hartu dau parte AZEK.

"Garagarrilean kadete karrera batzuk egin doguz, Gipuzkoan batez be. Ondo ibili gara. Gipuzkoan ondo antolatuta egon dira eta modu seguruan. Bizkaian be egin doguz 5 karrera. Atzena, kadete mailako Bizkaiko Txapelketea izan zan Otxandion.

Igorreko Ziklo-krosa

Igorreko Ziklo-krosa 1977an jokatu zan lehenengoz, San Kristobalen eta lehenengo edizino haretako irabazlea Jose Mari Yurrebaso izan zan. 1993 urtean, Igorreko Ziklo-krosa Munduko Kopan sartu zan eta Olabarriko zirkuitura pasau zan. Munduko Kopako lasterketea izan zan 2011ra arte. Felipe Orts-ek eta Lucia Gonzalezek irabazi eben igaz, Igorreko 43. Ziklo-krosa.

eta gizonezkoetan, Galdakaoko Legorburu, Usansoloko Larrinagaz neurtuko da. Finala, urri bigarrenaren 16an, 18:30ean, jokatu da Dimako frontoian.

VI. UDAGOIENEN TXAPELKETEAREN FINALAK	
URRIAK 16, 18:30 DIMEKO FRONTOIAN	
PROMESAK	
BEITIA CIMADEVILLA (LAGUN ONAK - Zornotza)	ENOK LAZKANO (LEMOA)
NESKAK (4 1/2)	
A. BERGARA (BERGARA)	RUIZ DE INFANTE (TXUMULUXUETA - Dima)
ELITE (4 1/2)	
LEGORBURU (ADISKIDE - Galdako)	LARRINAGA (USANSOLO)

PELOTEA

Txumuluxuetako Ainhoa Ruiz de Infante Dimako VI. Udagoieneko Txapelketako finalean

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 2an eta 9an, jokatu ziran finalerdia eta neurtuko diran pelotarien kartela prest dago. Txapel bi Arratiako klubetan geratzeko aukerea dago. Izan be, finalerako sailkatu dira Dimako Txumuluxueta klubeko Ainhoa Ruiz de Infante eta promesa mai-

lan, Lemoako klubeko Enok eta Lazkano.

Binakako promesen finalean, Beitia eta Cimadevillak, Lemoako pelota klubeko Enok eta Lazkano izango dabez aurrez aurre txapela lortzeko lehian. Lau t'erdikoan, Bergarako Arrate Bergarak, Txumuluxueta klubeko Ainhoa Ruiz de Infante izango dau aurkari,


MENDIA

Arantzazuko Mugarri Bira, urri bigarrenaren 17an

Erredakzioa

Sanfaustoak ospatu ez arren, arantzazutarrak, Arginatx Mendi Taldeak antolatuten dauan Mugarri Bira mendi ibilaldia egin ahal izango dabe aurten be hilaren 17an, zapatua. Urtekerea mailakatu izango da. Hamar personako taldeak urtengo dira 5 minuturo. Lehenengo taldea goizeko 08:30ean abiatuko da herriko plaza-tatik.

Mugarri Birak aurreko urteetako ibilbide bera izango dau. Partaideak 10,57 kilometro egin eta 527 metroko desnibela gaindituko dabe, herriko mugetatik



zehar.

Izena bezpera arte emon daiteke Montero tabernan.

MENDIA

Areatza-Gorbeia-Areatza ordu bi baino denpora gitxiagoan egin eban Jokin Zabalak



Jokin Zabala, senide eta lagunakaz proba amaitu eta gero.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 30ean, Areatza-Gorbeia-Areatza ibilbidea 01:59:26ko denporan egin eban Jokin Zabala bediazarrak. Ordu bi eta laurdenetan egitea zan erronka, galapan eta bizikletan. Ordu laurden bat gitxiago behar izan eban.

Lehenengo zatia, Areatzatik Pagomakurrera bizikletan 36 minutu eta 19 segundotan egin eban. Pagomakurre-Gorbeia-Pagomakurre galapan egiteko, 1:09:30 behar izan eban eta Pagomakurretik Areatzara jeisteko bizikletan 10 minutu eta 23 segundu. Transi-

zino bietan, 3 minutu eta 14 segundu.

Emozinoz betetako eguna

Jokin Zabala urri bigarrenaren lehenengo egunetan zan erronka egiteko, baina egun horretarako eguraldi txarra egoanez iragarrita, urri lehenengoaren 30era aurreratu eban. "Emozinoz betetako eguna izan zan. Familia eta lagunak ibilbide osoan zehar egon ziran. Eguraldia, itzela eta asko disfrutau neban" azaldu deutso Zabalak BEGITURI. Zabala, seguru dago Arratiako askok denpora gitxiagoan be egin daikiela eta berak be ez dau deskartetan, denpora hori bajatuten saiatzea.

MENDIA

Sano eguraldi txarragaz 74 kilometro egin ebazan Pedro Lejarzak Gorbeian

Pedro Lejarza Zeanuriko mendi lasterketariak ezin izan eban hirugarren buelta amaitu. Gorbeia Suziaren lasterketearen ibilbidea hiru bider egitea zan erronka, 99 km.

Erredakzioa

Erronka gogorra zan, urteko eguraldirik txarrenak zaildu egin ebana. Hirugarren bueltan, erronka etetea ebatzi eban, Gorbeian 17 ordu ibili ostean eta 74 kilometro eginda.

Urri bigarrenaren 3a zan egu-

Aspanovas

Helburu solidarioa batengaitik ibili zan Lejarza gau petral haretan Gorbeian gora eta behera. "Lehengusina minbiziz hil zan eta horrek bihotza ikutu eustan. Horregaitik ipini nintzan kontaktuan Aspanovas-ekoakaz. Euren lana



Iñigo Aseginolaza, Raul Montiel, Pedro Lejarza eta Aitor Arbulu.

na. Gorbeian, edurra, txingorra, euria eta 100 km/h haize boladak egon ziran. Hotz handia eta lainoa. Bariku eta zapatu arteko gauean 00:00etan ekin eutsan Pedro Lejarzak probeari. Lehengo bueltan, lainoagaz galdu egin zan Arraban eta ordubete inguru ibili zan galduta. "Boluntarioak be txarto pasau eban", dino. Izan be, denpora guztian boluntarioez lagunduta egin eban ibilbidea. Buelta bakotxean bi, eta Gorbeian beste bat zain egoten zan. Bidean sakabanatuta be hainbat.

"Fisikoki eta psikologikoki ondo nengoan, proba amaituteko moduan, baina mendian sakabanatuta egoazan boluntarioakaz kezkatuta nengoan hotz handia egiten ebalako. Horregaitik, euren segurtasunagaitik, hirugarren buelta ez egitea ebatzi neban" azaldu deuto Pedro Lejarzak BEGITORI.

Ha-ta guzti be, erronkeak bere helburua lortu ebalako azaldu eban, Aspanovas, minbizia daukien Bizkaiko ume eta nerabeen gurasoak osotutako alkartearentzat dirua batu eta euren lanari bisibilidadea emoteko balio izan ebalako.

Erronkeak Zeanuriko Udalaren eta Gorbeia Suzien lasterketaren antolakuntzearen laguntza euki eban.

ikustarazo gura neban, COVID-19aren garaian, beste patologia larriak be hor dagozalako, jarraituten dabe hor egoten".

Aspanovas alkarteko Ainhoa Fernandezek eskerrak emon eutsazan Zeanuriri diruagaitik eta euren lana ikusgai egiteagaitik. "Kaleko jentekak holango erronkak hartuta deitzean deuskunean, bihotza poztu egiten jaku. Alde ekonomikoa garrantzitsua da, sasoi latza da danontzat, eta horregaitik, emondako euro bako txak biderkatu egiten dau bere balioa".

Erabiltzaileen egoera latzagoa egin da COVID-19a dala-eta hartutako neurriakaitik. Holan, askotan ezin izan dira fisikoki umea edo familiaren ondoan egon momentu gogorretan bildurra arintzeko; umeak beste erkidego bateko ospitaleetara joan behar izan diranean, joana eta egonaldia konplikau egin dira mobikortsan murrizketakaitik; gurasoren batek lana galdu edo ABEEen badago, arazo ekonomikoak gehitzean dira eta tratamendu batzuk be eten edo atzeratu egin dira, besteak beste. Hori dala-eta, martiaren 14tik aurrera be, beharrea segidu dabe Aspanovasen, lehengo preminai eta barriari erantzuna emoten.

MENDIA

Mendi biluzia filma eta liburua kaleratu ditu Alex Txikon mendizaleak

Mendi biluzia filmak eta liburuak, 2016ko Nanga Parbatego neguko igoera kontetan dabe. Zezeilaren 26an, historian lehenengo aldiz, Alex Txikonek, Simone Morok eta Aldi Sadparak tontorra egin eban neguan.

Erredakzioa

Liburua Sua Argitaletxeak argitaratu dau eta filma zemendiarren 2an estreinauko da Bilboko Euskalduna Jauregian. Ondoren, "Mendi Biluzia Tourra" hasiko dau Txikonek herri askotatik.

Itxialdian landutako "proiektu sano personala" da *Mendi biluzia*.

Liburua lehenengo personan dago idatzita. Tom Ballard eta Daniele Nardiren erreskateagaz hasten da. 2019an izan zan, Alex Txikon K2an egoan beste neguko espedizino baten eta erreskatean parte hartu eban, Nanga Parbaten.

Filma, euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez ikusi ahal izango da. Zementiaren 2, 3 eta 5ean Bilbon,

4 eta 6an Donostian, eta beste uri eta herrietan egongo da gero.



Etxeko Janaria Zure Etxean

Jandoniz Egoitzaren Zerbitzu Berria

Bel Etxe Bedia
Zure gustua

Betiko janarian zure extea
Etxera eramateko janariaren zerbitzuak dieta orekatu eta osasuntsua eramaten laguntzen die gure nagusiei, etxean bertan. Karta-zerbitzua da; bazkaria, afora edo biak eska daitezke astean nahi duzun beste egunetan, inolako konpromezurik gabe.

Neurrira egindako dietak
Askotariko menuak ditugu, testura ezberdinekin eta zure beharrezanetara egokitutako dietak.

Banatu baino askoz gehiago
Banatzaileak astean hiru aldiz bisita egiten dizunean irautitze datak begiratu dituz. Termoseilatu bidez itxitako ontzietan banatzen da janaria, kalitate osoa bermatuz.

1 BANAKETA
Eskaria aurreikusitako ordutegian helduko da

2 BANATZAILE JATORRA
Banatzaileak aurretik utzitako janaria berraztertu eta eskari berria utziko dizu

3 INFORMAZIOA
Ontziak nutrizio informazioarekin eta irautitze datarekin etiketatuta daude

4 KONTSERBAZIOA
Ontziak hozkailuan gorde behar dira kontsumo unera arte

5 PRESTAKETA
Plastikoa zulatu eta berotujanaria 3 minutuz mikrohuin labean

3 MINUTUAN PREST

GOGORATU!!! Behin ontzia irekita, 24 orduko epean kontsumitu

JANDONIZ NAGUSIENTZAKO ETXEA
JANDONIZ, 2 KALEA
48390 BEDIA
INFO@RESIDENCIAPARAMAYORESJANDONIZ.ES

946313130

LEHIAKETEAK

2021eko egutegirako
Argazki Lehiaketea

Erredakzioa

Lemoako Udalak IX. Argazki Lehiaketea antolatu dau argazkigintza bultzatzeko eta 2021eko egutegia egiteko. Izan be, hamabi argazki aukeratu dira Udaleko 2021eko egutegirako. Argazkion gaia "Lemoa" izango da.

Argazkiak, formatu horizontalean eta era digitalean, *kultura@lemoa.net* helbidera bialdu behar dira urri bigarrenaren 31 baino lehen. Edonork hartu daiteke parte eta partaide bakotzak argazki bakarra bialdu ahal dau.

Epaimahaia, Udalak aukeratuak argazkigintzako adituak osotuko dabe eta saria, egute-

gian argazkia argitaratzeaz gainera, opari bat izango da.



ONDAREAK

Igorre eta Dimako
hezkuntza ondarea
jakitera emoteko
jarduera bi egongo dira

Antzasti.

Erredakzioa

Ondarearen Europako Jardunaldiak aurten hezkuntza ondarea hartu dabe gaitzat eta horren inguruko ekintzak antolatu dabez Areatza, Dima, Igorre, Zeanuri eta Zeberion. Hilaren bigarren hamabostaldi honetarako Igorrek eta Dimak daukie programauta jarduera bana. Gainontzeko herrietan, aurreko hamabostaldian egin ziran.

Hilaren 21ean, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean, Angel Larrea Beobide historialariak Igorre eta Arratiako hezkuntza ondarearen gaineko berbaldia egingo dau. Eskolak izango ditu berbagai: udal eskolak, Kontseilu Probintzialak sortutako auzo eskolak, eskola erlijiosoak eta ikastetxe pribaduak. Baita Arra-

tiako maisu-maistra ezagunak be. Ikastolen mobimentuaren testuinguruan, arratiar batek sortutako euskerazko ikasmateriala erakutsi eta azalduko dau.

Diman hitzordua hilaren 31n da Artaungo plazan, 10:00etan. Antzasti Euskaldunon Etxea bisitauko dabe partaideak eta gero, oinez Obara joango dira, hango eskola zaharra ikusteko. "Umeen zentzune, etxean entzune" esakeran oinarrituta, Antzastin, etxean eta familian umeak jasoten ebezan lehen ikaskuntza moduak ezetuteko aukerea dago, eta Oban hango eskola zaharra eta auzo eskolen fenomenoaz azalduko da. Holan, lehengo hezkuntza modu bi erakutsiko dauz jarduerak. Leku bien artean, ibilbide gidatua oinez egiteko aukerea egongo da.

ALKARRIZKETEA

Deiene Gurtubai: "Argazkigintzea
emozinoak transmitiduteko modu bat da"

Deiene Gurtubai bitan irabazi dau BEGITUKO Udako Argazki Lehiaketea, baita konfinamentuko argazki lehiaketea be. Argazki bat egiterakoan zeri begiratzen deutzan azaldu dau alkarrizketa honetan.



Erredakzioa

BEGITUK antolatutako argazki lehiaketetako epaimahaiak, hirutan ebatzi dabe aurkeztutako argazkierik onena Deiene Gurtubai Zamezak bialdutakoren bat zala. Aurten, 2020ko oporretako lehiaketea, *Iraila Gorbeien*, argazkiagaz irabazi dau; igaz be lehiaketa hau irabazi eban *Etxebarrie baserrie* izenekoa-gaz, eta konfinamentuko argazki lehiaketako saria be, berak eroan eban, umore puntu bategaz *Aupa Etxebeste!* pelikulea akordura ekarten eban erretratuagaz.

Lanbideari jagokonean, hezkuntza munduan dago Deiene Gurtubai; Haur Hezkuntzako zikloa eginda dauka eta Pedagogia ikasten dabil oin, baina ama izanda, etxeko lanak eta umearen zaintza lanak erreibindikau gura dauz lan moduan be.

Argazkigintzeari jagokonean, oin arte modu amateurrean egin badau be, modu profesionalean egitea ez dau bazterten; izan be, enkarguko lan batzuk egin ditu eta beste batzuk berbatuta daukaz.

Zelan hasi ziran argazkigintzan? Argazkigintzea afizino moduan izan dot beti, baina oin ez dakit afizionau moduan jarraitu ala profesional bihurtu. Horretan nago.

Beti izan naz kuadrillako astuna, mobilagaz. Okasino guztietan, kedada guztietan, han izaten nintzan beti argazkiak ateraten. Umea euki neban 2016an, Sua jaio zan, eta hor hasi nintzan argazki gehiago ateraten. Orduan erregalau eusten kamara bat eta hortik aurrera, kamareagaz noa leku guztietara.

Argazkilari profesional izateko asmorik?

Bueno, bai, jenteak animetan nau horretara. Esaten deuste *crowdfundinga* egiteko materiala lortuteko. Arratian argazkilari on piloa daukagu eta bakotzak arlo bat beteten dau, baina...

Eta batez be, Egoitzek, nire bikotekidea zanak, animetan ninduan. Ha zan gehien animetan ninduan argazki mundu honetan! Gure umea jaio zanean, eurak biak izaten ziran nire modeloak. Gero, emon ebazanean 6 hilabete ospitalean umea ikusi ezinik, egunero egiten neutsezan erretratuak umeari eta txakurrari Egoitzek ikusteko. Ezin ebana bizi, biziteko modu bat zan.

Horreek izan dira nire praktika handienak. Niretzat argazkiak egitea transmitiduteko bide bat zan. Eta da.

Maila profesionalean, zer egiteko asmoa daukazu?

Momentuz badaukadaz gauza batzuk berbatuta. Abenduan er-

ditze bat, barbarako. Etxean erdituko dan baten argazkilaria izango naz. Argazkigintza mota hori asko gustetan jata, erditze baten dagozan emozinoak, momentuak... Horrek piloa erakarten nau. Horregaitik, ipini nintzan kontaktuan emagin batzukaz eta momentuz, askori galdetu ostean, bikote batek onartu dau ni joatea. Gogo itzela daukat horretarako.

Datorren urtean be ezkontza bat berbatuta daukat.

Lehenengo lan profesionalak dira ala aurretik be egin dozuz holangoak?

Lantxo batzuk be egin dodaz. Etxebarrie baserrian, barbarako, ogia egiten dabe eta euren lanaren argazkiak egin dodaz.

Eta gero kuadrillan be, haurdunaldiak eta umeak jaioten diranean umeai argazkiak... eta holangoak.

Zeri begiratzen deutzazu argazki bat aterateko orduan? Ze motatako erretratuak egitea gustetan jatzu?

Niri asko gustetan jata, naturan egitea argazkiak. Baso artean bizi naz, Zeanuriko Ogarabeti auzoan, eta basoan nagoanean, leku guztietan ikusten dodaz argazkiak. Baina batez be emozinoak transmitidutea gustetan jata, koloreak be bai... Argazkigintzea niretzako, emozinoak transmitiduteko modu bat da.

KULTUREA

Mauro Saraviaren *Kosmo-polita* argazki erakusketea Lemoan

Urri bigarrenaren 12an,
Kulturartekotasun eta Nazioaniztasun
Eguna dala-eta, Lemoako Udalak, Mauro
Saraviaren *Kosmo-polita* erakusketea
antolatu dau herriko kaleetan.

Erredakzioa

Bederatzi erretratuk osotuten dabe erakusketea. Argazkilariak begiradea ipinten dau herri bat izatearen konzientzia sortzean daben identidadeengan, herri hori osotuten daben personen jatorria edozein izanda be. Eki-men honegaz Udalak, "zelango gizartean bizi garan, eta zein eredarantza joan gura dogun aztertzeke hausnarketea" bultzatu gura dau.

Kultura pizten

Erakusketea ez da izango hileko ekintza kultural bakarra. Izan be, Kultura pizten izenpean, Udalak, atera dau urri bigarreneko agenda kulturala eta aurrez aurreko hainbat ekintza eskaintzen ditu, batez be ume eta gazteentzat.

Holan, eguenean, hilak 15, 17:30ean, lau eta hamabi urte bitarteko umeentzako, Txa-

loka antzerki taldearen *Buala* antzezlan egongo da ikusgai ludotekan. Hurrengo ekintza be umeentzat izango da. Ixabel Agirresarobe aktore eta ipuin kontalaria egongo da liburutegian hilaren 22an, Liburutegi Eguna ospatuteko 17:30ean, lau eta zortzi urte bitarteko umeentzako saio bat eskainiz. Izena 94 631 20 64 telefonoan emon behar da.

Arimen gaua

Arratiako hainbat herritan Arimen gaua ospatzeko ohitura zaharra berreskuratzeko lanean dihardue. Izan be, gau horretan kalabazak hustu eta barruan kandelak ipintea jentea bildurtzeko ez da arrotza gurean, eta tradizio horren lekukoa pasau gura deutsee gazteai. Gaia, Lemoako Gazteleku landuten dabiz eta Koadro Lehiaketea antolatu dabe hilaren 31rako,

17:00etan. Arloan aditua dan persona bat egongo da Gaztelekuan ikastaro txiki bat emoten. "Bertan, koadroak margozteko teknika, idea eta pausuak azalduko dauz eta bitartean gazteak praktiketako aukerea eukiko dabe. Ondoren, koadroa bertan margozteko denporea" eukiko dabe parte hartzaileak. Irabazleak, "bere koadroa herriko taberna, gune eta leku desberdinetan ipinteko aukerea izango dau" azaldu deusie BEGITURI Gaztelekukoak. Izena *lemoako-gaztelekue@gmail.com* helbidean emon behar da.

LEMOA KULTURA PIZTEN
Urria / Octubre

12 KULTURARTEKOTASUN ETA NAZIOANIZTASUN EGUNA
DÍA DE LA INTERCULTURALIDAD Y PLURINACIONALIDAD
ARGAZKI ERAKUSKETA EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA
Lemoan zehar Por Lemoa Urrian zehar En octubre

15 "BUALA" ANTZERKIA TEATRO
17:30 Ludoteka 24 pertona 4-12 urte años
www.lemoa.net Urriak 7-13 octubre

22 LIBURUTEGIAREN EGUNA DÍA DE LA BIBLIOTECA
IXABEL AGIRRESAROBEN IPUIN KONTALARIA CUENTACUENTOS
17:30 Liburutegia liburutegia 13 pertona
94 631 20 64 / liburutegi@lemoa.net
Urriak 15 octubre

31 KOADRO LEHIAKETA CONCURSO DE CUADROS
GAIA TEMA ARIMEN GAUA
17:00 Gaztelekua 20 pertona 12-18 urte años
Gaztelekua / lemoakogaztelekue@gmail.com
Urriak 9-18 octubre

KULTUREA

Begitu-lagun egitea 15 euroan, Bizkaia Aurrera Kultura Bonuakaz

Erredakzioa

Bizkaia Aurrera Kultura Bonua (BAKB) izenpean, Bizkaian kultura konsumoa bultzatzeko asmoz, bonuak kaleratu ditu BFAK. Bonu honek Begitu-lagun izateko aukera parebakoa eskaintzen dabe; izan be, bonuokaz, Begitu-lagun egin ezkeru, Begitu-lagun barriak 15 euro pagau eta BEGITUK 40 euro jasoko dauz.

Gainera, opari moduan, telazko boltsa bat, besoko argi islatzailea eta zortzi liburu jasoko ditu Begitu-lagun barriak eta Garena jate-txean lagun birentzako degustazio menuaren zozketan sartuko

da. Liburuok Angel Larrea eta Juan Rekalderen *Arratia Inguruko Hiztegia* eta *Berbategitxoa*, Alvaro Rabelliren *Ustezko fikzioak* eta *Saguzarren profhezia*, Peru Tximaluze alemaniar ipuin klasikoaren euskerazko bersinoa, Arratia Musika Eskolako 25. urteurreneko monografia eta Iker Yurrebasoren *Haizea aurpegian* dira. Nerea Zuloaga eta Iratxe Andikotxearen *Kontaidazu! Kontaidazu!* ipuin eta abestien liburu-CDa be eroango dabe Begitu-lagun barriak.

Begitu hobetuteko baliabide ekonomikoak behar dirala eta 2020ean, 50 Begitu-lagun barri egiteko kanpaina dago martxan.



DUNBA

Eskolearen indarra

Zulaibar Lanbide Ikastegia

2020ko martiaren 12a erraz ahaztuko ez dogun data izango da. Momentu horretan oindino ez bagenkian be, azkenengo al-dian hezkuntza komunitateari suertau jakon erronkarik handiena geunkan gure aurrean, eskolako ateak zarratu eta gure betiko praktikak, ohiturak eta harremanak guztiz aldatu ziran eta.

Egoera honek zerbaist garrantzitsua irakatsi deusku danori, gizarte zein hezkuntza komunitateari, ze gaitasun daukagun egoera barri eta ezezagunetara egokitzeko eta hortaz ikasteko.

Zulaibarren denporea da barrikuntza metodologikoaren alde egiten gabizala eta ikaste prozesua apurka-apurka eraldatzen gizarteak zein lan merkaduak azaltzen dituan beharizantetara

egokitzeko; guretzat ardatz nagusi diran testuinguru kolaborati-boak sustatuz eta ikaskuntza prozesuaren digitalizazioa indartuz.

Ez genkian noraino, arinago hasi genduan bide hau, garrantzizkoa izango zan momentu haretan. Persona askorentzat "arrakala digitala"k arriskuan ipini ebazan hezkuntza moduko oinarritzko eskubideak. Gure ikastetxetik esfortzu handia egin genduan familiak bizi ebezan gabezi honeei erantzun bat emoteko, ordenagailuak itxiz, interneterako konexinoak bilatuz eta erraztuz, ikaskuntzarako programak eta tresna digitalak luzatuz...

Lanbide heziketan, batez be, irakasleok bere proposamen pedagogikoa guztiz berrasmatu behar izan dau, testuinguru bertualean praktikan aurrera erroten diran horreek islatzeko.



Ikasleak Zulaibarren.

Baina zerbaist garrantzitsuagoa ikasi dogu prozesu honetan, baliabide digitalen giza funtzioa. Presentzialtasun egoeran izaten

garan bidelagun izaten jarraituteko, teknologiak emon deusku aukerea. Ikasleagazko gertutasuna eta afektuzko harremana

ezinbestekoak izan dira egoera honetan animoak eta motibazioa bizirik mantenduteko.

Ikasturte barria hasi dogu eta emozino eta poztasun handiagaz hartu doguz ikasleak barriro be eskolan. Hilabete honeetan badakigu ziurbakotasun egoeran biziko garala eta aurretik izan daikaguzan zailtasunaz ohartzen gara, horregaitik etenbarik jarraitzen dogu ikasten eta hobetzen, beti be eskoleak daukan indarrean sinistuz eta ilusinoa galdu barik.



AGENDA

URRI BI. 15
ARANTZAZU

Hilaren 16ra arte, urri bigarrenaren 17an izango dan Mugarri Biran izen emotea Montero tabernan.

AREATZA

19:00etan, Euskaraldiko batzarra. Udaletxeko Areto Nagusian.

Euskaraldia 2020, martxan gara!

Izen ematea zabalik daborduko <https://izenematea.euskaraldia.eus/> helbidean

Ez utzi azken ordurako!

BATZARRA
Urriaren 15ean
19:00etan
Udal areto nagusian

* Parte hartzeko 94 673 90 10 telefonon eman izena



19:30ean, garagardao dastaketea bainuetxean; 6 garagardo mota eta mokadutxo. Beerllarok antolatuta.

ARTEA

Hilaren 19ra arte, izena emon Roberto Aguadoren berbaldirako udaletxean Artean erroldatutakoak.

ARRATIA

Norbanakoak Euskaraldian izena emoteko epea zabalik. www.euskaraldia.eus helbidean.

Berbalagun proiektuan parte hartzeako, informazio gehiago eskatzeko zein izena emoteko deitu 662 199 033 telefonora edo idatzi arratia_berba@aek.eus helbidera.

BEDIA

16:30etik 19:30era, zemendiaren 13ra arte, izena emoteko epea zabalik Bediako Euskaraldian parte hartzeako. Liburutegian.

DIMA

18:30ean, Landa Inguruko Andren Eguna. *Zuhaitza* dokumentala eta baserri inguruko bizipenen gaineko berbaldia. Abaroa aretoan.

IGORRE

Zemendiaren 8ra arte, Ertibil erakusketa ibiltaria Kultur Etxean.

Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo liburu.igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

LEMOA

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

Hilaren 31ra arte, Lemoako IX. Argazki Lehiaketea. Gaia: Lemoa. Argazkiak kultura@lemoa.net helbidera bialdu.

Mauro Saraviaren *Kosmo-polita* argazki erakusketea herrian hilean zehar.

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturgunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

17:30ean, lau eta hamabi urte bitarteko umeentzako, Txaloka antzerki taldearen *Buala* antzezlan. Ludotekan.

Abendura arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukerea. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Lemoako herria taldean. Kakoa: 204F9E. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/1KH1d9SW5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Lemoan erroldatuta egon behar da.

ZEBERIO

Hilaren 31ra arte, herriko ingurua eta ekintzak gaitzat daukiezan argazkiak bialdu daitezke udala.zeberio@bizkaia.org helbidera 2021eko egutegia osotuteko Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar dira baina ezin dira panoramikoak izan.

URRI BI. 16**DIMA**

18:30ean, Dimako Udagoieneko Eskupelota Txapelketako finalak.

URRI BI. 17**ARANTZAZU**

08:30etik, 5 minuturo, Mugarri Bira herriko plazatik abiatuta.

AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, "Baso bainua" Ruben Lagaresen eskutik. Izen emotea gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonon.

DIMA

10:30ean, plazan, Andraizeak antolatuta, Artaungo Antzasti Euskaldunon Etxera bisita gidatua. Bertan, 11:00etan.

LEMOA

08:00etan, Karabien. Hurretx makilen bila urtekerea. Harriketarrak Gazte Asanbladeak antolatuta.

URRI BI. 18**BEDIA**

17:00etan, Bingo-kafea 13 eta 22 urte bitarteko gazteentzat eta jubiladuentzat frontoian.

**Zahar etxetik igesean**

Ilgoran Andren Jabekuntza Eskolako Morea eta Grisak, Thom Fitzgerald-en *Cloudburst* (Canada, 2011) filma dakar urri bigarrenaren 27an, 17:30ean, Arteako Kultur Etxera.

Film honetako protagonistak, Stellak eta Dot-ek, 31 urteko harremnaren ostean, zahar etxean egon gura ez eta hanka egingo dabe, Canadara joan eta han alkarregaz ezkondu ahal izateko. Thelma eta Louise-n moduan, bidean autostop egiten dauan gazte bat jasoko dabe.

Roadmovie sano dibertigarria honetan egindako lanagaitik, Olympia Dukakisek aktore onenari saria jaso eban 18. LesGaiCineMad jaialdian.

URRI BI. 20**ARTEA**

Roberto Aguadoren berbaldirako izena emon Artean erroldatuta ez dagozanak.

ZEANURI

18:00etan, martitzenero, kakorrazetan, 30x30 cm-ko txatal more eta gorriak egiten. Zemendiaren 10ean josiko dira txatalok, zapi bat egiteko, andran kontrako biolentzia matxistea salatuteko. Eguzkiolan.

URRI BI. 21**ARTEA**

18:00etan, Roberto Aguadoren berbaldia *Educar con gestión emocional*. Eleizan.

IGORRE

19:00etan, Ondarearen Europako Jardunaldiak, Angel Larrearen berbaldia, *Hezkuntza ondarea Igorren eta Arratian*. Kultur Etxean.

LEMOA

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.


URRI BI. 22**LEMOA**

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

17:30ean, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria 4-8 urte bitartekoentzat liburutegian.

URRI BI. 23**IGORRE**

19:30ean, konzentrazioa Irune Costumero eta bere alabearen alde eta Gurasoen Alizenazino Sindrome faltsuaren erabilera salatzeke. Errotondan.

**URRI BI. 24****BEDIA**

09:30ean, Udalak antolatuta, Getariara urtekerea, 18 urtetik gorako andrantzat.

URRI BI. 25**ARTEA**

18:00etan, *Hariak* helduentzako ipuin kontaketea Mireia Delgadoren eskutik Kultur Etxean. Izena emon arteakoandratidea@gmail.com helbidean edo udaletxera deituta.

ZEANURI

11:00etan, Gorbeia Turismo Jomugak antolatuta, Undurraga urtegiari itzulia.

URRI BI. 28**LEMOA**

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

URRI BI. 29**LEMOA**

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

URRI BI. 30**BEDIA**

18:00etan, Arimen gaua frontoian.

DIMA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Feminismoa eta euskara* tailerra, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen eskutik. Abaroa Aretoan.

URRI BI. 31**ARRATIA**

18:00etan, Altxa! Erabakitzearen aldeko ekimenaren proiektuzko herrietan. Gure Eskuk antolatuta.

DIMA

10:00etatik 14:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Feminismoa eta euskara* tailerra, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen eskutik. Abaroa Aretoan.

10:00etan, Antzasti Euskaldunon Etxean eta 12:15ean Oban, leku bien artean ibilaldi gidatua. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

LEMOA

17:00etan, Koadro Lehiaketea. Gaia: Arimen gaua. 12-18 urte bitartekoentzat. Gaztelekuan.

★ BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Galder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA ★ beeredariak@gmail.com

Gugaz
harremanetan
ipinteko

94 631 73 14
eta
649 979 112

begitu

Publizidadea:
649 979 115

begitu@topagunea.com

KO MI KI A

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA ALOKAIKUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean. Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deutsut; horretarako, plan personalizaua egingo deutsut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Institutuko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, marrazketa tekniko, teknologia... klaseak eskaintzen dira. Informazio gehiagorako deitu 608 381 984 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
BEGITUKO kamiseta bana.

Karmelo Uriarte (Zornotza)
Urtzi Barrenetxea (Lemoa)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umeen moda
sein
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERBITZUA
609421222
IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tf. 94-673-70-87
Tf. 609-79-40-54

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 7.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 75

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXE BIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheka - Igorre (Bizkaia)

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, beheka
aitzol@coavn.org · 675 705 111

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizitatea: 649 979 115
begitu
begitu@topagunea.com www.begitu.org

begitu

18
urte

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jabetxean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu abenduan.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

bizkaiko kultur
txartela

www.bizkaia.net/bizkaikokulturtxartela

cecobi

BFA DFB

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

ARRATIAKO
KALENTURA K

Ipuin Erotiko Lehiaketa

zertu
kultur elkarte

Oinarriak:

1. Lehiaketa honetan hamasei urteik gorako edozein personak hartu leike parte.
2. Lan guztiak argitaratu bakoak eta euskeraz idatziak izan beharko dira.
3. Lanak ipuin erotikoak izan behar dira eta DIN A4 orrietan makinaz tarte bikotxean idatzita aurkeztu beharko dira. Lanen luzeerea lau eta zortzi orrialde artekoa izan beharko da.
4. Lanean ez da egilearen daturik ipiniko, izenburua bakarrik. Egilearen datuak (Izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren izenburua) gutunazal zarratu baten sartuko dira eta gutunazal horren azalean lanean ipini dan izenburu bera ipini beharko da.
5. Lan orijinala, hiru kopia, eta egilearen datuak dituan gutunazala beste gutunazal handiago baten sartuta, honako helbide honetara bialdu beharko da: Zertu Kultur Elkarte, Herriko Plaza 24, 48142 Artea (Bizkaia). Posta elektronikoz bialdu ezkeru, gehitu arkiibo bi, bat lanerako, bestea datuetarako, eta bialdu helbide honetara: begitu@topagunea.com.
6. Hiru sari emongo dira: lehena 600 eurokoa, bigarrena 400 eurokoa eta Arratiako onenari, 250 eurokoa.
7. Lanak bialduteko azken eguna 2020ko zementiaren 30a da.